

'Izenpe' txartela banatzeari ekin dio berriro KZguneak

Internet bidez tramiteak egin eta informazioa eskuratzeko aukera ematen du txartelak

I. Elorza

KZgunean hasi dira berriro Izenpe Herritarren txartela banatzen. Sinadura elektronikoa dela eta, txartel honekin informazio zabala eskuragarri izan daiteke internet bidez.

Izenpe txartelak txip bat du eta baita jabe bat ere. Baina, aldi berean, edozein eragiketa egin ahal izateko edo norberari buruzko informazioa lortzeko sinadura elektronikoa bat eskatzen du, benetan txartelaren titularra eta mementoan erabiltzen ari dena pertsona bera dela ziurtatzeko. Sarean Gizarte Segurantzaren webgunean norberari buruzko informazioa lortu daiteke, Lan Bizitza adibidez. Besteak beste, liburutegiko sarean ere konektatu daiteke, posta elektronikoa ikusi, erreserbak egin, Udaleko errolda-agiria, txostenak eta isunak ikusi eta beste hainbat kontu kontsulta daitezke internet bidez, txartel honi esker.

Zalantzak argitzeko KZguneak on-line ikastaro bat eskaintzen du Sinadura Elektronikoa zer den eta nola erabili jakiteko. www.izenpe.com gunean ere informazio gehiago lortu daiteke.

Izenpe txartela doan eskuratzen da. Interesa dutenek Aizkibel Udal Liburutegiko hirugarren solairuan dagoen KZgunera joan eta bertako arduradunari eskatu beharko dio bete beharreko agiria.

KZgunearen helburua ahalik eta erabiltzaile gehienak txartela lehenbailehen eskuratzea da.